

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 1/2014

AKORDIOA, (...) ANDREAK, EUSKO JAURLARITZAKO (...) ZUZENDARIAK, PLANTEATUTAKO AUZIARI BURUZKOA, HURA TITULAR DEN ZUZENDARITZAKO LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BETETZEKO ERATUTAKO EBALUAZIO-BATZORDEAN PARTE HARTZEKO BERTARATZEENGATIK KOBRATZEAREN BIDEZKOTASUNAREN INGURUAN.

1.- 2014ko urtarrilaren 30eko idazki baten bidez, Eusko Jaurlaritzako zuzendariak kontsulta bat egin dio Etika Publikorako Batzorde (EPB) honi, buru den zuzendaritzako lanpostu bat aldi baterako betetzeko eratutako ebaluazio-batzordean parte hartzeko bertaratzeengatik kobratzearen bidez kotasunaren inguruan.

2.- Kontsulta horri dagokionez, Etika eta Jokabide Kodearen (aurrerantzean EJK) 16.4 ataleko bigarren tartekian jasotako komunikazio telematikoko mekanismoak baliatuz, EPBk hartu du honako

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1. Etika eta Jokabide Kodea (EJK), Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartua 2013ko maiatzaren 28an egindako bileran, politikaren zentzu etikoa indarberritzeko xedeaz sortu zen, eta herritarrek beren erakundeetan konfiantza berreskuratzea du jomuga.

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen zehazten du kodeak, horien jarduerak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezzen dokumentu horretan aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Azken xedea da zintzotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Gobernuaren irudi instituzionala zainduz, haren eraginkortasuna indartuz eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza higitzea saihestuz.

2.- EJK oinarrizko bost balioaren inguruan taxutu da –Osootasuna, Bikaintasuna, Politika eta kudeaketa bat etorraraztea, Lidergoa eta Berrikuntza–, eta funtsezko sei printzipioen inguruan: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna, Kudeaketari lotutako erantzukizuna, Gardentasuna eta gobernatze irekia, Onestasuna eta ezaxola subjektiboa, Errespetua eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipioen esparru horretan, kodeak jokabide, jarrera eta portaera ugari aipatzen ditu, eta horiek dira, hain zuzen ere, EPB honek erreferentzia gisa ezarri behar duen

parametroa, beren borondatez kodeari atxikitako kargu publikodunek batzorde honen esku jartzen dituzten auzi eta dilema etikoei erantzuteko orduan.

Azken alderdi horri dagokionez, kodearen 16.3 atalak lehenengo puntuan ezartzen du EPB izango dela “oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du”.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA

1.-Interesdunak, Eusko Jaurlaritzako zuzendariak, EPBren esku-hartzea eskatu du, erabaki dezan etikoki zilegi den **hark kobratzea zerbitzu-eginkizunean organikoki bera titular den zuzendaritzako lanpostu bat aldi baterako betetzeko eraturako ebaluazio-batzordean parte hartzeko “bertaratzeengatik”**.

2.- Auziaren eragilea da Eusko Jaurlaritzako (...) 1 zenbakiko lanpostua aldi baterako betetzeko prozedura.

Aipaturiko prozedura arau honetan ezarritakoaren arabera deitu zen: Agindua, 2006ko maiatzaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozedura arautzen duena. Bete beharreko lanpostuaren ezaugarriengatik, agindu horretan I eta II koadratze-mailetako A edo A/AB taldeko lanpostuak betetzeko jasota dauden berariazko prozeduren artean sailkatu zen deialdia.

3.- 2006ko maiatzaren 30eko Agindu horren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, tankera horretako prozeduretan, zerbitzu-eginkizunetarako izangaiek aurkeztutako merituen balorazioa *ad hoc* eraturako ebaluazio-batzorde batek egingo du; deialdia egin duen saileko edo erakundeko Zerbitzuko zuzendariak izendatuko ditu kideak, “egokiak eta gaituak” izan daitezzen zainduz.

4.- Arauzko xedapen horiek aplikatuta, izangaien merituen baloratzeaz arduratu behar zuen **ebaluazio-batzordeko buru izendatu zuten** interesdun andrea, zerbitzu-eginkizunean Eusko Jaurlaritzako (...) 1 zenbakiko lanpostua aldi baterako betetzeko prozeduran.

5.- Ebaluazio-batzorde horietan parte hartzeak **indemnitazio edo konpentsazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea ematen du**, “epaimahai” bateko bileretara “bertaratzeengatik”. Izan ere, 2006ko maiatzaren 30eko Aginduan jasota dauden **ebaluazio-batzordeak** “epaimahai” hitzaren barruan sartzen dira, eta otsailaren 2ko Dekretuak, zerbitzuengatik indemnitazioak jasotzeko buruzkoak, 4 g) artikuluan kide anitzeko organotzat hartzen ditu epaimahaiak,

zeintzuetan “langileek” parte hartzeak “indemnitazioak edo konpentsazioak” jasotzeko eskubidea ematen duen.

Langileek jaso ahal izango dituzte, Dekretu honetan ezartzen diren kasu eta baldintzetan, **indemnitazio edo konpentsazio hauek:**

(.....)

g) **Bertaratzea;** Administrazioaren edo Administrazio Kontseiluen kide anitzeko organoetara joateagatik, **Epaimahaietan parte hartzeagatik** edo prestakuntza-jardueretan aritzeagatik **sortutako konpentsazio ekonomikoa da.**

6.- Kontsultagai dugun kasuan, ez da zalantzan jartzen, oro har, lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez esleitzeko prozedura baten barruan eraturako ebaluazio-batzorde batean parte hartzeagatik indemnitazioak edo “bertaratzeak” jasotzearen bidez kotasuna. Horri buruzko araua garbia da eta ez du interpretaziorako zalantzarik uzten. **Auzitan jartzen dena da etikoki zilegi den bere borondatez EJKri atxikitako goi-kargudun edo parekatu batek horiek kobratzea. Eta, zehazkiago, hain zuzen ere bete nahi den lanpostuari atxikita dagoen unitate administratiboaren buru den goi-kargudun edo parekatu batek horiek kobratzea.**

7.- Aurreko erabaki batzuetan jada adierazi denez, EPB honek, egiten zaizkion kontsultei erantzuteko orduan, dagokion jarrera, jardunbidea edo portaeraren zilegitasun etikoa aztertuko du EJKn jasotako balio, printzipio eta ildoen argitan, kode hori baita erabakitzeko duen parametro nagusia. Beraz, jarraian zehaztuko dugu **kodeko zein arauk duten zerikusia EPBri aztergai jarritako kasuarekin, arauotan aurkitzen baitira auzia ebaztera eraman gaitzaketen gako etikoak.**

8.- EJK-k ez du erantzun zehatz, argi eta erabatekorik aztergai dugun auzirako. Alabaina, *stricto sensu* goi-kargudun bati dagokion ordainsariaz bestelako diru-sarrerak jasotzea estuki loturik dago, zalantzarik gabe, kodean biltzen diren printzipio eta balio batekin baino gehiagorekin. Esaterako, **Integritatearen balioa**, kodeak honela definitzen duena: “Alde batetik, kargu publikodunek eta parekatutakoek honako hauei atxikimendu sistematiko eta iraunkorra izatea da: onestasan-, inpartzialtasun-, objektibotasun-, gardentasun-printzipioei, esparru juridikoaren errespetuari eta, zer diren gorabehera, ingurune publiko horretan esku hartzen duten edo harekin harremana duten pertsona guztiei; bestetik, beren eskumeneko gaien kudeaketan erantzukizun-parametroen arabera jokatzeko da”.

Lotura egin liteke, halaber, EJKren arabera kargu publikodunek beren jokabidean zaindu beharreko **onestasunarekin edo eredugarritasunarekin**, eta, zehazkiago, 11. eta 15. ataletan jasotako zenbait jokabiderek.

9.- Bestalde, gogoratu behar da, hain zuzen ere argitasuna eskaintzearen, administrazioaren gardentasunean sakontzearen eta, horri esker, herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza suspertzearen, Euskal Autonomia Erkidegoko legegileak erabaki zuela, duela jada zenbait bosturteko, Euskadiko Administrazio Orokorreko goi-kargudun guztientzat ordainketa

bakarreko sistema bat ezartzea, errotik baztertzen duena beste administrazio batzuetan goi-kargudunen ordainketaren inguruan hainbesteko iluntasuna ekarri duten zenbait kontzeptu erabiltzea, hala nola produktibitate-osagarria.

Horren harira, urriaren 28ko 14/1988 Legeak, goi-kargudunen lansariei buruzkoak, 2.1. artikuluan honakoa ezarri zuen: “Jaurlearitzakide eta Arduralaritzako goi-kargudunek lansari bakar bat jasoko dute beren jardunetan. Lansari honen urte bakoitzeko zenbatekoa, kontzeptu bakarrean, dagokion Aurrekontu Legean zehaztuko da”. Arau hori, berez, ez da bateraezina karguari dagozkion eginkizunak egiteagatik dietak jasotzearekin edo ordain moduan indemnizazioak kobratzearekin, baina adierazten du legelariak argi eta garbi ordainketa-erregimen garden eta garbi baten alde egin zuela; eta jarrera horrek berebiziko garrantzia du etikari begira, batik bat herritarrek erakundeekiko agertzen duten mesfidantza, neurri handi batean, haiei egozten dien iluntasun eta ulergaitzasunean oinarritzen den uneotan. Horregatik, hain zuzen ere, ezinbestean irizpide murriztailez jokatu behar dugu, goi-kargudunek haiek atxikita dauden administrazio publiko beretik etorri arren beren lana ordaintzeko lege ezarritako ordainsariez bestelako diru-sarrerak jasotzearen zilegitasun etikoari buruzko irizpena emateko orduan.

10.- EJKren 14. atalak, kudeaketaren erantzukizunari buruzko jokabide eta portaerak zehazten dituenak, gogora ekartzen duenez, “kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diotela dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera”. EJK gorpuzten duten printzipio, balio, jarrera eta portaeren multzoan erdigunean dagoen jardunbide horrekin estuki loturik, kodeak garrantzi handiko beste bi arau ezartzen ditu, 14. atalaren arabera arduraldi “osoa eta eskusiboa” eman behar dioten eginkizun horiengatik goi-kargudunek lege ezarritako diru-sarrera osagarriak kobratzeko aukeraren inguruan. Zehazki, 11.4 eta 15. ataletan jasotakoak dira.

Lehenengoak honakoa xedatzen du: “Inoiz ere ez dute onartuko diruzko edo gauzako saririk hitzaldiak emateagatik edo eztabaidetan parte hartzeagatik, jarduera bere kualifikazioen edo aurretiazko lanbide-jardueren arabera gauzatzen ez bada, eta ekitaldi horretan parte hartzearen xedeak batere zerikusirik ez badu kargu publikoa betetzearekin”. Bigarrenak, berriz, honakoa dio: “Betetzen duten karguaren ondorioz liburutun, aldizkaritan, egunkaritan eta beste edozein hedabidetan ekarpenak egiteagatik ez dute inolako ordainketarik onartu behar, baldin eta ekarpen horiek funtzioak betetzeari lotuta badaude”.

Hiru pasarte horien irakurketa sistematiko batek ondorio hauek ateratzera garamatza:

a) Karguari arduraldi “osoa eta eskusiboa” ematearen printzipio orokorretik salbuetsita daude, soilik, irakaskuntzarekin, jarduera akademikoarekin, ikerketarekin edo dibulgazioarekin lotutako zereginak.

b) Goi-karguduna edo parekatua haren karguarekin bateragarriak diren jardueren esparruan ari denean, konpentsazio ekonomikoak jaso ahal izango ditu soilik “jarduera bere kualifikazioen edo aurretiazko lanbide-jardueren arabera gauzatzen ez bada, eta ekitaldi horretan parte hartzearen xedeak batere zerikusirik ez badu kargu publikoa betetzearekin” (11.4 atala), eta, halaber, jarduerak “bere funtzioak betetzeari lotuta ez badaude” (15. atala).

c) Aitzitik, sari horiek ezingo dira jaso jarduerak zerikusia badute “kargu publikoa betetzearekin”, edo “bere funtzioak betetzeari lotuta badaude”.

Horren arabera, ordaindu nahi diren jarduerak kargu publikoarekin eta hark esleituak dituen funtzioekin duten erlazioa da EJK-k erabiltzen duen irizpide erabakigarria goi-kargudunek edo parekatuek haiei ordaintzeko legez ezarritakoez bestelako konpentsazio ekonomikoak –dirutan edo gauzaz– jasotzea baimentzeko edo debekatzeko orduan. Horrenbestez, ordain horiek zilegi dira soilik haiek jasotzeko eskubidea ematen duten jarduerak kargu publikoarekin eta haren esparru funtzionalarekin inolako loturarik ez badute.

Jarraibide etiko hori beste era batera adierazi liteke: arduraldi “osoa eta eksklusiboa” izatearen printzipioak esan nahi du kargu publikoduna ezin dela arduratu legez dagozkionez bestelako funtzioez –EJK-k baimentzen duen salbuespenezko kasuetan izan ezik–, baina orobat esan nahi du arreta jarri behar diela betetzen duen postuari zuzenean edo zeharka dagozkion funtzio guztiei, horregatik trukean inolako ordainsari osagarririk jaso gabe.

11.- Gaur arte planteatu zaizkion kontsultak ebazteko orduan, EPB honek bere jarrera agertu du zehaztean zein irizpide hartu behar diren kontuan kargu publikodun baten jarduerak noiz “ez duen loturarik” hark betetzen duen postuarekin.

Aztertutako ia kasu guztietan, jarduera kargu publikoari dagokiola zein harekin “loturarik ez duela” erabakitzen delarik ere, jarduera hori ez da postuaren funtzioekiko erabat arrotza izaten. Izan ere, sarritan, logikoa denez, kargu publikodunak jarduera horiek egiten ditu bere prestakuntzagatik, lanbide-gaikuntzagatik edo duen itzal edo prestigioagatik; horiek, segur aski, goi-kargudun izendatu zutenean aintzat hartuak izango ziren.

Hala, prestakuntza-jarduerak edo jarduera akademikoek horiek egin nahi zituen goi-kargudunaren berezko funtzioekin zuten “loturarik ezari” buruz, 1/2013 Akordioan honakoa erabaki zuen EBP honek:

“... “inolako loturarik ez” adierazpenaren arrazoizko interpretazioa gorago azaldutako salbuespenaren barruan hartu behar da aintzat, hau da: interesdunak jarduera horretan parte hartzeko asmoa bere lehenagoko jarduerari estuki lotuta jaiotzen dela, eta beste datu ez funtsezko eta objektibo batek, hots, gaur egun aurrez kreditaturiko lanbide-prestakuntzarekin bat datozen eginkizun batzuk gauzatzeak, ezin duela ilundu edo eragotzi irakaskuntzarekin lotutako jardueretan parte hartzea. 11.4 atala sistematikoki hartu behar da aintzat jokabide “nagusi”ari buruzko esakunearen barruan; hona hemen azken hori: “Onestasanari, desinteres subjektiboari eta kargu publikodunen interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak”. Arauak zuzentasunaren balioa eta onestasanaren printzipioa babestu nahi ditu, bai eta, neurri batean, eredugarritasunaren printzipioa ere. Hori dela eta, EPB honek uste du interesdunak gauzatu nahi dituen jarduera horietan parte hartzeak ez diela kalterik egiten aipatutako balio eta hatsarreei ez eta EJK-k galarazitako jokabideei ere, baldin eta jarduera horiek bidezko baldintzetan egiten badira dedikazio-orduei dagokienez, eta ez badiote eragiten eman beharreko zerbitzu publikoaren funtzionamendu egokiari.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzan duen goi-kargua dela medio interesduna aipatutako izaerako ekintzetan parte hartzera gonbidatzen badute, edo bistakoa bada inguruabar horrek modu erabakigarrian eragin duela ekintza horietara gonbidatzeko orduan, interesdunak kontuan hartu beharko luke lan horrek "kargu publikoan jardutearekin inolaz ere lotuta ez" egoteari uzten diola eta, horren ondorioz, uko egin beharko liokeela trukean ordain ekonomikoren bat jasotzeari.

12.- Gogoeta horien haritik, aztertu behar dugu kontsultak hizpide duen jarduerak – lanpostuak esleitzeko prozedura baten barruan eraturako ebaluazio-batzorde batean parte hartzea– loturarik ez duen interesdunaren kargu publikoarekin edo, aitzitik, duen karguaren berezko funtzioen barruan sartzen den.

13.- Apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuak Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen du. Dekretuaren 9. artikulua, berriz, interesduna titularra den Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzari dagozkion funtzioak zerrendatzen ditu:

9. artikulua.– Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.

Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzak honako eginkizun hauek ditu:

- a) Lurralde-antolamendurako tresnak sustatu, prestatu, izapidetu eta, halakorik badagokio, aldatzea, Administrazio beste erakunde batzuek dituzten eskumenei kalterik eragin gabe.
- b) Paisaiaren antolamendua eta babes bultzatzea, lurraldeko antolamenduko tresnen arloan.
- c) Zuzendaritzaren gaitan araugintza-proiektuak prestatzea, Zerbitzu Zuzendaritzarekin batera.
- d) Hirigintza-antolamenduko tresnak izapidetzea, baldin eta Eusko Jaurlaritzak badu horiek onartzeko eskumena, bai eta lurralde-planeamenduko zehaztapenak garatzen dituztenak izapidetzea ere.
- e) Lurralde-antolamendu eta hirigintza-antolamenduko tresnen txosten teknikoak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Aholku Kontseiluaren funtzionamenduan, bai eta organo horiei lurralde-antolamenduaren eta lurzoru eta hirigintzaren arloko legeriak esleitutako gainerako funtzioak betetzea ere.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen idazkaritza eta babes teknikoa ematea.
- g) Jaurlaritzaren Kontseiluak hartu beharreko akordio-proposamenak prestatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean eta Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean Eusko Jaurlaritzari esleitutako funtzioak direla eta.
- h) Plangintzaren Euskal Erregistroa kudeatzea.
- i) Lurralde-antolamenduko gaitan hirigintza-ikuskaritza gauzatzea eta hirigintza-diziplinaren arloan dituen ahalmenak erabiltzea.
- j) Lurralde-biziberripenerako ekintza zehatzak sustatzea, industria-aurriek eragindako eremuetan eta 1980 baino lehenagoko hiriguneetan arreta berezia jarriz.
- k) Ingurumen Sailburuordetzari eta Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzari esleitutako jarduerak gauzatzeko desjabetze-espeditateak izapidetzea.
- l) Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura (DEA) eta bere geo-ataria (www.geo.euskadi.net) bultzatu eta koordinatzea, informazioaren eta zerbitzu geografikoen zabalkundea eta berrerabilpena sustatuz.
- m) Eusko Jaurlaritzaren oinarriko kartografia ofiziala prestatzea eta Euskadiko Datu Espazialen Azpiegiturari bidaltzea, Euskadiko azpiegitura kartografiko eta geodesikoaren mantenimendua kontrolatuz.

- n) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sortzen duen informazio geografikoa koordinatzea, datu geografiko harmoniatuak eta kalitatezkoak eskuratzeko, gaur egungo eta etorkizuneko beharrei atzemanaz eta Europar Batasuneko informazio espazialaren azpiegiturari buruzko Europako legerian (INSPIRE) ezarritakoa betetzen dela zainduz.
- o) Kartografia eta geodesia arloetako laguntza teknikoa eta informazio geografikoa zabaldu eta ematea, Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren informazio geografikoa eta zerbitzuak banatuz eta ustiatuz.
- p) Beste administrazio batzuekiko eta pertsona publiko nahiz pribatuekiko zuzendaritzaren gaitan egiten diren hitzarmenak eta lankidetzak-tresnak betetzea eta horien jarraipena egitea
- q) Zuzendaritzaren arlo funtzionaletako irizpenak, txostenak eta azterlanak prestatzea.
- r) Zehapen-espedienteak instruitzea zuzendaritzaren eskumeneko diren gaitan.

Transkribatu den zerrenda luzean jasotako funtzioen artean bakar batean ere ez da berariaz aipatzen funtzio publikoaren esparruan deitutako lanpostuak betetzeko prozeduren barruan epaimahaietan edo ebaluazio-batzordeetan parte hartzea. Dena dela, artikulua hori interesduna titularraren den organoari dagozkion berariazko funtzio sektorialak aipatzera mugatzen da. Baina horiei gehitu behar zaizkie **Zuzendaritzako maila duten Saileko kargudun guztiei oro har esleitutako funtzioak. Funtzio horiek egitura organikoari buruzko dekretu beraren 6. artikuluan jasota daude:**

6. artikulua.– Saileko zuzendariak.
- a) Saileko zuzendariari dagokien, zuzenean eta hierarkian sailburuaren menpe, honako eskumen hauek erabiltzea:
 - b) Bere jardueraren eremuei esleitutako helburuak zabaltzea, Zuzendaritzaren barneko zerbitzuak eta lan-sistemak antolatuz, jarduerak eta ardurak esleitzuz, lortutakoa kontrolatuz eta kudeaketan behar diren zuzenketak ezarrituz, organo eskudunek ezarritako arauekin bat etorrituz.
 - c) Zuzendaritzako jarduerak programatu, zuzendu, bultzatu, zuzendu, koordinatu eta ikuskatzea, goragoko organoak emandako jarraibideen arabera.
 - d) Bere eskumeneko gaitan xedapen-proiektu orokorrak, planak, programak eta jarduerak garrantzitsuak prestatzeko eta izapidetzeko lanak sustatzea, Zerbitzu Zuzendaritzarekin batera.
 - e) Beste administrazio batzuekiko eta pertsona publiko nahiz pribatuekiko hitzarmenak eta lankidetzak-tresnak proposatzea, zuzendaritzaren gaitan.
 - f) Bere eskumeneko arloetan beharrezko diren ebazpenak ematea, bai eta behar denean goragoko organoetara ebazpen-proposamenak bidaltzea ere.
 - g) Politikako tresnak garatzea eta aplikatzea, zuzendaritzaren funtzio-arloetan.
 - h) Zuzendaritzari dagozkion gaiterako diru-laguntzak emateko bideak proposatzea.
 - i) Zuzendaritzaren tasen eta prezio publikoen zenbatekoa proposatzea eta, hala badagokio, beharrezko likidazioa egitea.
 - j) **Indarrean dagoen araubide juridikoak agintzen dien beste edozein funtzio, edo, orokorrean, Administrazio zuzendariari atxikitzen zaizkienak.**

Artikulua irakurrita ondorioztatzen denez, Sailaren Zuzendaritza bakoitzari dagokion jardueraren administratiboa garatu ahal izateko, haren egitura organikoa ezartzen duen dekretuak funtzio horizontal batzuk ere esleitzen dizkie zuzendariari, plangintza eta kudeaketa

administratiboarekin zerikusia dutenak; funtzio horiek klausula orokor batekin amaitzen dira, 6.j artikuluan jasoa, non esleitzen zaizkien indarrean dagoen araubide juridikoak agintzen dien beste edozein funtzio, edo, orokorrean, Administrazio zuzendariei atxikitzen zaizkienak.

14.- Akordio honen 3. puntuan adierazi dugunez, 2006ko maiatzaren 30eko Aginduak, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarenak, ezartzen du lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozesu guztietan ebaluazio-batzorde bat eratu behar dela, non bete beharreko postuek koadratze-maila jakin batzuk atxikita dituzten.

Aztergai dugun kasuan, arau hori dela-eta ebaluazio-batzordea eratu behar izan zen, eta, agindu berari jarraiki, haren burua izango zen “lanpostua atxikita duen zuzendaritzako ordezkari bat”. Eta, horrenbestez, interesduna, deitutako lanpostua organikoki txertatuta dagoen zuzendaritzako titularra, izendatu zuten.

15.- Ebaluazio-batzordearen buru izatea ez zegokion, lege-aginduz, zuzendariari. Arauak, ikusi dugunez, soilik esaten du batzordeburua izan behar dela deitutako lanpostua atxikita duen “zuzendaritzako ordezkari bat”; ez, ezinbestean, zuzendaritzaren titularra. Alabaina, interesdunak berak ebaluazio-batzordeko buru izendatua izateari buruzko kontsulta egiten duen posta elektronikoa onartzen duenez, “artikulu horrek [Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren Aginduko 18. artikulua] finkatzen duenaren arabera, **eta zerbitzu horren zuzendaria naizen aldetik**, Ebaluatzeko Batzordean batzordeburua izendatua izan naiz”.

Haren prestakuntza akademikoak eta lanbide-esperientzia eta -gaikuntzak pisua izan zuten, zalantzarik gabe, izendatua izateko arrazoen artean, horretara behartzen duelako, besteak beste, lanpostuen hautaketa- eta hornidura-prozesuetan ebaluazio-batzordeak eratze aldera jarraitu beharreko espezializazioaren printzipioak. Baina faktore horiek jada aintzat hartuak izan ziren zuzendari izendatu zutenean, eta ez litzateke arrazoizkoa pentsatzea kasu honetan ere eragin nabarmen eta erabakigarria izan zutela, eta zuzendari izateak ez zuela zerikusirik izan. Interesdunak hala aitortzen du, bestalde, gorago transkribatutako adierazpenean.

16.- Ondorioz, interesduna ebaluazio-batzordeko buru gisa jardutea funtzio bat gehiago dela ulertu behar da, zuzendari gisa dituenen artetik, egia bada ere zuzendaritzako mailaz unitate administratibo bateko arduradun moduan dagokion funtzio orokor bat dela eta ez funtzio berariazko eta sektorial bat, zuzendaritzaren funtzioak gauzatzen diren esparru zehatzari dagokiona. Beraz, jarduera hori dela-eta ezin zaio eman Euskadiko Administrazio Orokorreko goi-kargudun eta parekatuei ordaintzeko lege ezarritako ordainsari-erregimenaz bestelako ordain ekonomikorik.

Horren guztiaren ondorioz, EPBk hartzen du honako

ERABAKIA:

Lehenik.- (...) andrea, Eusko Jaurlaritzako zuzendaria, haren zuzendaritza bereko (...) 1 zenbakiko lanpostua aldi baterako betetzeko eraturako ebaluazio-batzordeko buru izendatu dute –beste edozein zuzendari tankera honetako batzordeetako buru izendatzen duten kasu guztietan bezala– kargu publikoduna delako, izendapenerako baldintza bakarra baita deitutako lanpostua txertatuta dagoen zuzendaritzaren ordezkaria izatea.

Bigarren.- Kargu publikodun batek funtzio edo jarduera bat egitea, funtzio edo jarduera hori kargu publikoari dagokion berezkoa denean, ezin da, inola ere, kargu publikoa betetzeagatik ordainketa bakarrean eta kontzeptu bakarragatik ematen denaz bestelako ordainsari batekin ordaindu, ez diruz ez gauzaz.

Hirugarren.- Beraz, interesdunari gomendatzen zaio uko egin diezaiola Eusko Jaurlaritzako (...) Zuzendaritzako (...) 1 zenbakiko lanpostua aldi baterako betetze aldera eraturako ebaluazio-batzordean batzordeburu gisa parte hartzeko “bertaratzeengatik” jaso lezakeen indemnizazioari.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordearen lehendakaria

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 17a